

PRENTSA OHARRA: 2025.11.20

Ibone Bengoetxea lehendakariordeak Sorbonne Unibertsitatean azpimarratu du hizkuntza-aniztasunaren eta elkarrizketaren garrantzia

— Etxepare Euskal Institutuaren 15. urteurren ospakizunen baitan, nazioarteko kongresua egiten ari dira egunotan Sorbona eta Sorbonne Nouvelle unibertsitateetan

— Jorratutako lankidetzari esker, nazioarteko prestigidun Sorbona Unibertsitatean hizkuntza, artea, pentsamendua eta esperimentazioa uztartuko dituen Euskal ikasketen “Esther Ferrer katedra” abian jarriko du Etxepare Euskal Institutuak

Paris, 2025eko azaroaren 20a-. 150 bat lagunek hartu dute parte azaroaren 19tik 20ra, Etxepare Euskal Institutuaren 15. urteurren ekitaldien baitan, ‘Hizkuntza gutxiuak testuinguru frankofonoan’ Sorbonne eta Sorbonne Nouvelle unibertsitateetan antolatutako nazioarteko kongresuan.

Ibone Bengoetxea Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak eman dio hasiera jardunaldi bakoitzari eta bertan azaldu du jardunaldi hauek ez direla soilik akademikoak, baizik eta Euskadi Global ikuspegia islatzen dutela: “Mundura irekitako herria gara, gure hizkuntza eta kultura beste batzuekin sarean jartzen dugu, identitate irekia eta partekatua eraikiz”. Ildo honetan lehendakariordeak azaldu du datorren ikasturtean Sorbona Unibertsitatean Euskal ikasketen “Esther Ferrer katedra” abian jarriko duela Etxepare Euskal

Institutuak. “Katedra hau elkarriketarako eta sorkuntzarako topagune bat izango da. Hizkuntza, artea, pentsamendua eta esperimentazioa uztartuko dituen”, azaldu du.

Biltzarrean bederatzi unibertsitateko 20 bat hizlarik hartu dute parte guztira asteazkenetik ostegun arteko kongresuan, frankofoniaren eremuan mintzaira gutxituek egun dituzten erronken inguruan hausnartzea helburu duena. Lehendakariordearekin batera, Capucine Boidin-Caravias Sorbonne Nouvelle unibertsitateko ikerketa batzordeko lehendakariordea eta Béatrice Perez Sorbonne unibertsitateko Letren Fakultateko katedradunarekin batera, hurrenez hurren.

Horrez gain, Etxepare Euskal Institutua munduan euskal nortasunaren adierazle dela nabarmendu du lehendakariordeak, Euskadik nazioarte mailan duen euskararen eta kulturaren eragilerik behinena baita, haren esanetan. “Nazioartean parte hartzea ez da soilik proiektzio bat: komunitate global baten kide izatea da, balioetan eta elkartasunean oinarritutako komunitate baten kide”, esan du Bengoetxea.

Euskara abiapuntu eta inspirazio-iturri hartuta, eremu frankofonoko hizkuntza gutxituen arteko elkarriketari eman diote bide lehendakariordearen hitzek. Zehazki, orotara hiru mahainguru eta bi hitzaldi nagusi izango ditu hitzorduak, eta aztergai diren hizkuntza horien itzulpen-, transmisio- eta aintzatespen-dinamikei buruz eztabaidatzen dihardute, baita haien eskubideen aitortzari buruz ere.

Esther Ferrer Katedra Sorbonan

Ibone Bengoetxea lehendakariordeak nabarmendu du Esther Ferrer Katedra mugarri garrantzitsua izango dela euskararentzat eta euskal kulturarentzat. Sorbona Unibertsitatean sortzeak haren zilegitasun akademikoa sendotzen du eta nazioarteko proiektzioa indartzen.

Katedrak euskararen eta euskal kulturaren ikerketa akademikoa bultzatzeaz gain, artea, pentsamendua eta sormena uztartzen dituen espazio inspiratzailea izango da. Hurrengo ikasturtean, Etxepare Euskal Institutua munduan zehar 33 irakurletza, 13

katedra eta 3 ikerketa programa martxan izango ditu datorren ikasturtean, euskararen eta euskal kulturaren nazioarteko zabalkundea indartuz.

Nazioarteko jardunaldien garapena

Lehen jardunaldiak hitzaldi eta mahainguru bana hartu zituen atzo Sorbonne Nouvelle unibertsitatean. Mintzaira gutxituetako itzulpena abiapuntu hartuta, itzulpen-politikak eta -praktikak aztertu zituen lehen eztabaida-zatiak, hizkuntza horiek ikusarazteko edo baztertzeko tresna gisa. Besteak beste, bretoieraren kasua izan zuten hizpide, zeinetan itzulpen askok balio sinboliko handiagoa duten funtzionala baino; edota Guyana frantseseko hizkuntza indigenen egoera, “Frantziako hizkuntza” gisa aitortuak izan arren, oraindik ere interpretazio- eta informazio publiko zerbitzu faltari aurre egin behar diotenak, bazterketa eraginez eta herritartasun sentimendua ahulduz. Halaber, euskaratik frantseserako literatura-itzulpena ere aztergai izan zuten, hizkuntza gutxitu baten eta hegemoniko baten arteko asimetriaren adibide gisa, Ipar Euskal Herrian euskararen auziak duen bilakaeran fokua jarrita.

Lehen jardunaldia osatzeko, Sciences Po Bordeaux zentroko ikerketa-zuzendari Xabier Itçainak ‘Hizkuntza(k), kultura(k) eta lurraldea: Iparraldeko gizarte zibilaren mobilizazioen errepaso historikoa’ osoko bilkura aurkeztu zuen, eta ondoren, Baionako Euskal Museoko zuzendari Sabine Cazenavek eman zion amaiera jardunaldiari, ‘Linguae Vasconum Primitiae’ liburuari buruzkoak gogora ekarrita.

Gaur Sorbonne unibertsitatean gauzatzen ari den jardunaldian, aldiz, lehendakariordearen agurraren ondoren, hizkuntza minorizatuei buruzko transmisioaz, bereganatzeaz eta birjabetzeaz diharduen eztabaidan izan dira Raquel Gómez Pintado, Ralph Ludwig, Aitzpea Leizaola eta Céline Mounole ikerlariak, eta beste horrenbeste aditu ariko dira —Cécile Rousselet, Myriam Bergeron-Maguire, James Costa eta Eguzki Urteaga— hizkuntza minorizatuen instituzionalizazioaren erronkak aletuko dituen mahainguruan, kongresuari itxiera emanez. Solasaldi hori baino lehen, Philippe Blanchet Rennes 2 unibertsitateko katedradunak hizkuntza-eskubideen inguruko osoko bilkura eskainiko du.

Sare akademikoa ehuntzeko kongresua

Hizkuntza-aniztasunari dagokion hausnarketa-gune honek Etxepare Euskal Institutuak Sorbonne Nouvelle eta Sorbonne unibertsitateekin abiatutako lankidetzan sakondu egiten du. Izan ere, goi-mailako bi ikasketa-zentro horietan hamarkada baino gehiagoko bidea urratu dute euskal ikasketek, eta tankera honetako topaketa batek sendotu egiten du Etxepare Euskal Institutuak orain arte nazioarte mailan euskararekiko eta euskal ikasketekiko hartutako konpromisoa.

Hala, Lehendakariak atzo eta lehendakariordeak gaur iragarri bezala, Esther Ferrer katedra sortuko du Etxepare Euskal Institutuak Sorbonne unibertsitatean. Euskararen eta euskal kulturaren ikerketa akademikoa Pariseko unibertsitate publiko horretan bultzatuko duen espazioak Euskal Herriko artistaren izena darama, eta hizkuntza, artea, pentsamendua eta esperimentazioa uztartuko ditu. Esther Ferrerrek bere lan artistikoa performancearen, eskulturaren edo instalazioen esparruan garatu du, eta, bere ekoizpenak nazioarteko hainbat eta munduko hainbat galeriatan eta jaialditan erakutsi dira. Besteak beste, Arte Plastikoen Velazquez Saria jaso zuen bigarren emakumea izan zen Ferrer, bai eta Espainiako Arte Plastikoen Saria 2009an eta Ikus Arteen Emakumeen Saria jasotakoa ere, 2014. urtean. Lehendakariordearen hitzetan, katedra berriaren izena “askatasunaren, sormenaren eta mugak gainditzeko ausardiaren ikurrari” zor dio.

Etxepare Euskal Institutuaren 15. urteurren ospakizuna Parisen

Aurten 15 urte bete dira Etxepare Euskal Institutuak bere jarduera abiatu zuenetik, eta urteurren hori ospatzeko antolatutako ekitaldien baitan kokatzen da nazioarteko kongresu akademikoa. Ospakizun ekitaldi nagusia, baina, bezperan egin zen, Frantziako Liburutegi Nazionalan (Bibliothèque nationale de France, BnF), Imanol Pradales lehendakaria buru zela. Bertan izan ziren, halaber, politikaren, erakundearen eta kulturaren esparruko ordezkari ugari, bai eta Parisen bizi diren euskal diasporako kideak ere. Urtemuga-ekitaldi nagusia bertan ospatu izanak badu ziorik, izan ere, Frantziako Liburutegi Nazionalak gordetzen baitu euskarazkoetan lehendabizikoa den

‘Linguae Vasconum Primitiae’ liburuaren ale bakarra, Bernat Etxeparek idatzia eta 1545. urtean Bordelen inprimatua. Egun Baionako Euskal Museoan erakusgai dago, urtarilaren 11ra arte.

Hala BnFko ospakizun-ekitaldia nola Sorbonne Nouvelle eta Sorbonne unibertsitateetan antolatutako nazioarteko kongresua Etxepare Euskal Institutuak sortutako Ça colle au basque egitasmoaren baitan kokatzen dira, euskara eta euskal sorkuntzaren proiektzioa frankofonian sendotzea helburu duena, Euskal Herriaren eta frantses mintzairadun komunitatearen arteko kultur eta akademia-lankidetzaz sustatuz.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeke egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzaz sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus